



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2015IPLE0008

Eguna: 2015/05/28

Ordua: 19:00 – 19:40

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- | | |
|-----------------------------------|------------|
| • Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBildu |
| • Maite Olatziregi Esparza | EHBildu |
| • Agin Laburu Rezola | EHBildu |
| • Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBildu |
| • Berta Arozena Bergara | EHBildu |
| • Isabel Otero Glorie | EHBildu |
| • Raul Redín Hernández | EHBildu |
| • Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| • Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| • Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |

Bertaratu ez direnak

- | | |
|---------------------------|------------|
| • Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |
|---------------------------|------------|

Bertaraturako udal teknikariak

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2015eko apirilaren 30 eta maiatzaren 19ko akten onarpena.	1	Aprobación del acta de 30 de abril y 19 de mayo de 2015.
“Ergobia Ibilbidea” 9 HEA eremuan sustapen pribatuko eta udalesleipeneko babes ofizialeko 18 etxebizitzak zozketatzeko baldintzak.	2	Bases para el sorteo de 18 viviendas de protección oficial de promoción privada en la A.I.U. 9 “Ergobia Ibilbidea”.
01”Alde Zaharra” HIEaren “Norberto Almandoz II” 02 HEUaren Plan Berezia.	3	Plan Especial de la U.E.U. 2 “Norberto Almandoz II” de la A.I.U. 1 “Alde Zaharra”.
2014ko Kontu Orokorraren onarpena	4	Aprobación de la Cuenta General 2014



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1-2015 kreditu gehigarria.	5	Crédito adicional 1-2015.
2-2015 kreditu aldaketa inguruko 489/2015 dekretua berrestea.	6	Ratificación decreto 489/2015 sobre modificación de crédito 2-2015.
Zarkumendegiko bidegorria gauzatzeko beharrezkoak diren lurak eskuratzeko hitzarmenak.	7	Convenio para obtener los terrenos necesarios para la ejecución del Bidegorri de Zarkumendegi
Santiгомendiko lur urbanoen hitzarmenak.	8	Convenio con los terrenos urbanos de Santiгомendi.
Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntzen onarpena	9	Aprobación ayudas para acciones locales de promoción de empleo 2015
Txertatu merkatuan eta Hazi proiektuak eta eskaerak onartzea	10	Aprobación las solicitudes y proyectos de Txertatu merkatuan y Hazi.
Informazio, galdera eta eskariak	11	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

EAJ-PNV 2 zinegotzien eta EHBildu 7 zinegotzien aldeko botokoekin eta Hamaikabat taldeko zinegotzi baten abstentzioarekin onartutako presako deklarazioaren ondoren, bi gai hauek gai zerrendan sartzea erabaki da:

- Estatuko Administrazioak jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatze ebazpenaren – alkatearen 370/2015 ebazpena – berri eman eta berrestea.
- Donostiako udalaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzea, udal honek 2015eko otsailaren 4ko udal osoko bilkuran hartutako akordioa administrazio isiltasunaren bidez ezetsi delako.

Previa declaración de urgencia aprobada con los 2 votos a favor de EAJ-PNV, los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat, se aprueba incluir en el orden del día los siguientes puntos:

- Dar cuenta y ratificar el Decreto de Alcaldía nº 370/2015 de personación en el Recurso contencioso administrativo interpuesto por la Administración del Estado.
- Interposición del recurso contencioso-administrativo contra el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián por la desestimación por silencio administrativo del acuerdo plenario que este Ayuntamiento adoptó el 4 de febrero de 2015



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1. 2015eko apirilaren 30 eta maiatzaren 19ko akten onarpena

Alkateak apirilaren 30eko aktaren 11. orrialdean Okendotegi ordez Okondotegi jarri dela adierazi eta zuzentzeko eskatu du. Akats hori zuzenduta, 9 aldeko botoarekin eta EAJ-PNVko Ramon zinegotziaren abstentzioarekin – osoko bilkura horretan ez baitzen egon – apirilaren 30eko akta onartzen da.

9 aldeko botoarekin eta EAJ-PNVko Ramon zinegotziaren abstentzioarekin – osoko bilkura horretan ez baitzen egon – maiatzaren 19ko akta onartzen da.

2. “Ergobia Ibilbidea” 9 HEA eremuan sustapen pribatuko eta udal esleipeneko babes ofizialeko 18 etxebizitzak zozketatzeko baldintzak

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har ditzaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehenengoa.- Ergobia Ibilbidea HEA 9ko a.2/BOE-2 lurzatian Erregimen orokorreko Babes ofizialeko 18 etxebizitza zozketatzeko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarian eta udal iragarki taulan argitaratzea interesatuek eskabidea aurkezteko.

Alkateak adierazten du, oraingoan udalak 18 etxebizitzaren zozketa egiteko aukera duela, eta oinarriak beste kasu batzuetarako onartutakoen antzerakoa direla, lehenetasuna emanaz Astigarragakoei.

Bestetik oinarrietan aldaketa txiki bat egin dela adierazten du, jabetza-erregistroko

1. Aprobación de las actas de 30 de abril y 19 de mayo de 2015

El alcalde señala que en la página 11 del acta del día 30 de abril figura Okondotegi en lugar de Okendotegi, y pide que se corrija. Corregido este error, con la abstención de Ramón de EAJ-PNV que no estuvo en la sesión, y el voto favorable del resto de presentes se aprueba el acta del pleno del 30 de abril.

Con la abstención de Ramón de EAJ-PNV que no estuvo en la sesión, y el voto favorable del resto de presentes se aprueba el acta del pleno del 19 de mayo.

2. Bases para el sorteo de 18 viviendas de protección oficial de promoción privada en la A.I.U. 9 “Ergobia Ibilbidea”

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar las Bases para el sorteo de 18 viviendas de protección oficial del área A.I.U. 9 “Ergobia Ibilbidea” parcela A.2/VPO-2 en régimen de compra.

Segundo.- Publicar las Bases en el BOG y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio y en el tablón de anuncios municipal.

El alcalde explica que en esta ocasión hay la posibilidad de realizar el sorteo para 18 viviendas, que las bases son similares a las aprobadas para otras ocasiones, y que se da prioridad a los de Astigarraga.

Por otro lado comenta que se ha introducido una pequeña modificación en las bases, ya que el certificado del registro



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

agiria eskaerarekin batera aurkeztea eskatzen baitzen eta erregistroko gastua saiheste arren, behin behingo zerrendan sartzean ekartzea eskatuko baita.

de la propiedad se exigía junto con la solicitud, y que para evitar el gasto del registro, se pedirá una vez que formen parte de la lista provisional.

Bixente zinegotziak hartzen du hitza, eta hauteskunderen emaitza dela eta, seguraski alkate berria egongo denez, puntu hau eta pleno osoa mahai gainean uztea eskatzen du.

Toma la palabra el concejal Bixente, y señala que dado el resultado de las elecciones y de que seguramente haya nuevo alcalde, pide que este punto y todo el pleno quede sobre la mesa.

Alkateak erabaki horiek hartzeko legitimitatea dutela adierazi eta bera Alkate bezala egon zenean ere, azken bilkuran gai garrantzitsuak erabaki zirela adierazten dio.

El alcalde le responde que tienen legitimidad para tomar esas decisiones y que cuando el fue alcalde también se decidieron temas importantes en la último pleno.

Bilkurara bertaraturako herritarren artean, Bixente zinegotziaren kontrako hitzak entzun eta Bixentek errespetua eskatu eta, alkatearen idazkariaren errespetu falta aktan jasotzea eskatzen du.

Entre los vecinos presentes en el acto se escuchan palabras contra Bixente, que pide respeto y que conste en acta que el secretario del alcalde le ha faltado al respeto.

Alkateak parte hartzen du, bertaratuei ixiltasuna eskatuz.

Toma la palabra el alcalde, que pide a los presentes silencio.

Zorionek zinegotziak hartzen du hitza udal idazkariari eta kontu-hartzaileari akordioak hartzearen inguruko legalitateari buruz galdetzeko, hauek legalitatearen barruan dagoela adieraziz.

Toma la palabra la concejal Zorione para preguntar a la secretaria e interventor municipal sobre la legalidad de la adopción de los acuerdos, contestándoles estos que están dentro de la legalidad.

Irizpena bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren abstentzioarekin eta EAJ-PNV eta EHBilduren aldeko 9 botoekin, onartu egin da, .

Sometida a votación es aprobada con la abstención del concejal de Hamaikabat y los 9 votos a favor de los concejales de EAJ-PNV y EHBildu.

3. 01 “Alde Zaharra” HIEaren “Norberto Almandoz II” 02 HEUaren Plan Berezia

3. Plan Especial de la U.E.U. 2 “Norberto Almandoz II” de la A.I.U. 1 “Alde Zaharra”

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har ditzaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Lehena.- Arantxa Arrieta aurkeztutako idazkia aintzat hartzea, idazten den Birpartzelazio Proiektuan kontuan hartzeko.

Bigarrena.- Patxi de Assas-ek Arruabarrena familiaren hitzeko mandatari gisa egindako alegazioa baiestea. Alegazio horretan sestraplean solairu bat gehiago jartzea onartzen da, eta hirigintza-erakigarritasunaren fitxan sestra gainean eta sestra azpian bildu beharko da.

Hirugarrena.- Arruabarrena familiaren lurzattia "zuzkidura-jarduketa" gisa definitzea.

Laugarrena.- Arkaitz Melero Verdenyk Foru Enparantza kaleko 5. eta 6. zenbakietako jabeekideen erkidegoa ordezkatzuz egindako alegazioa ezestea.

Bosgarrena.- Goizuetako Etxeak S.L. enpresari eskatzea Plan Bereziaren Testu Bategina -hartutako erabakiak bilduko dituen egin dezala, hura behin betiko onartzeko.

Seigarrena.- Udalaren Osoko Bilkurari irizpena aurkeztea Testu Bategina eman ondoren, eta testu hori udal-aholkulari juridikoak eta udal-arkitektoak baliozkotzat hartu ostean.

Alkateak aurkeztutako alegazioen berri eman eta, Testu Bategina aurkeztu denez, udal arkitektu eta aholkulari juridikoaren aldeko txostena duena, Plan Berezia behin betiko izaeraz onartzea proposatzen du.

Bixente zinegotziak hartzen du hitza, berriro ere gaia mahai gainean uzteko eskatuz.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza eta hirigintza batzordean aldeko botoa eman zutela eta orain ere alde bozkatuko dutela adierazten du.

Primero.- Considerar el escrito presentado por Arantxa Arrieta para que se tenga en cuenta en el Proyecto de Reparcelación que se redacte.

Segundo.- Estimar la alegación formulada por Patxi de Assas como mandatario verbal de la familia Arruabarrena, admitiéndose una planta más bajo rasante, y debiendo recogerse en la ficha la edificabilidad urbanística sobre y bajo rasante.

Tercero.- Definir la parcela de la familia Arruabarrena como una "actuación de dotación".

Cuarto.- Desestimar la alegación formulada por Arkaitz Melero Verdeny en representación de la comunidad de propietarios de Foru Enparantza 5 y 6.

Quinto.- Solicitar a Goizuetako Etxeak, S.L. que elabore un Texto Refundido de Plan Especial que incorpore las determinaciones acordadas para su aprobación definitiva.

Sexto.- Elevar dictamen al Ayuntamiento en Pleno una vez entregado el Texto Refundido y éste sea validado por la asesora jurídica y el arquitecto municipal.

El alcalde da cuenta de las alegaciones presentadas, y dado que se ha presentado el texto refundido, que cuenta con informe favorable del arquitecto municipal y la asesora jurídica, propone la aprobación definitiva del Plan Especial.

Toma la palabra el concejal Bixente para pedir nuevamente que el tema quede sobre la mesa.

Por otro lado, la concejal Zorione señala que en la comisión de urbanismo votaron a favor, y que ahora también lo van a hacer.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren abstentzioarekin eta EAJ-PNV eta EH Bilduren aldeko 9 botoekin, honako hau onartzen da:

Lehena.- Arantxa Arriak aurkeztutako idazkia aintzat hartzea, idazten den Birpartzelazio Proiektuan kontuan hartzeko.

Bigarrena.- Patxi de Assas-ek Arruabarrena familiaren hitzeko mandatari gisa egindako alegazioa baiestea. Alegazio horretan sestrapean solairu bat gehiago jartzea onartzen da, eta hirigintza-erakigarritasunaren fitxan sestra gainean eta sestra azpian bildu beharko da.

Hirugarrena.- Arruabarrena familiaren lurzattia "zuzkidura-jarduketa" gisa definitzea.

Laugarrena.- Arkaitz Melero Verdenyk Foru Enparantza kaleko 5. eta 6. zenbakietako jabe kideen erkidegoa ordezkatzuz egindako alegazioa ezestea.

Bosgarrena.- 01 "Alde Zaharra" HIEaren "Norberto Almandoz II" 02 HEUaren Plan Bereziarren Testu Bategina behin betiko izaeraz onartzea.

Sometida a votación, con la abstención del concejal de Hamaikabat y los 9 votos a favor de los concejales de EAJ-PNV y EH Bildu, se aprueba el siguiente acuerdo:

Primero.- Considerar el escrito presentado por Arantxa Arrieta para que se tenga en cuenta en el Proyecto de Reparcelación que se redacte.

Segundo.- Estimar la alegación formulada por Patxi de Assas como mandatario verbal de la familia Arruabarrena, admitiéndose una planta más bajo rasante, y debiendo recogerse en la ficha la edificabilidad urbanística sobre y bajo rasante.

Tercero.- Definir la parcela de la familia Arruabarrena como una "actuación de dotación".

Cuarto.- Desestimar la alegación formulada por Arkaitz Melero Verdeny en representación de la comunidad de propietarios de Foru Enparantza 5 y 6.

Quinto.- Aprobar definitivamente el Texto Refundido Plan Especial de la UEU 2 "Norberto Almandoz II" de la AIU 1 "Alde zaharra".

4. 2014ko Kontu Orokorraren onarpena

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har ditzaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehena.- 2014ko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.4 artikulua xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

4. Aprobación de la Cuenta General 2014

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar la Cuenta General 2014.

Segundo.- De conformidad con lo dispuesto en la NF 21/2003, en su artículo 63.4 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak alegaziorik egon ez direnez, onartzea dagokiola adieratzen du.

Bixente zinegotziak udal kontu-hartzaileari bozketu egin behar den galdetu eta honek baiezkoa ematen dio.

Bestetik, Bixentek Mikel Zabalaren auzian, zenbatekoa “*difícil cobro*” kategoriatik “*imposible cobro*” kategoriara pasatzeaz pozten dela adierazten du.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

5. 1-2015 kreditu gehigarria

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har ditzaten proposatzen da irizpen horretan:

1.- Udaleko kontu-hartzaileak jaulkitako txostena onartzea; txostenaren kopia gaineratzen da.

2.- Kreditu-aldaketarako espedientea ekainaren 5a arte jendaurrean jarrita dagoenez, txostenean bildutako kredituen onarpena eta espedientearen onarpena bera ere alegazioen (halakorik balego) ebazpenaren baldintza etengarriari lotuta geratzen dira.

3.- Jendaurrean jartzeko epearen barruan ez bada alegaziorik aurkezten, kontu-hartzailearen txostenean egokitutako kreditu-aldaketarako espedientea behin betiko onartuta geratuko litzateke beste erabaki bat hartu behar izanik gabe.

Jarraian alkateak kontu-hartzailearen txostenaren berri ematen du.

Zorione zinegotziak ogasun batzordean

en los términos que establece su normativa específicamente.

El alcalde explica que no se han presentado alegaciones y que procede su aprobación.

El concejal Bixente le pregunta al secretario-interventor si hay que votar, a lo que este le contesta que si.

Por otra parte, Bixente señala que se alegra de que el tema de Mikel Zabala se haya cambiado de categoría, pasando de “*difícil cobro*” a “*imposible cobro*”.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

5. Crédito adicional 1-2015

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Proceder a la aprobación del informe emitido por el interventor municipal cuya copia se adjunta.

2.- Como quiera que el expediente de modificación de créditos se encuentra en exposición pública hasta el día 5 de junio, la aprobación de los créditos contenidos en el informe y la propia aprobación del expediente quedan sujetas a condición suspensiva de la resolución de las alegaciones si las hubiere.

3.- Caso que no se formulen alegaciones en el plazo de exposición pública, el expediente de modificación de créditos adecuado en el informe del interventor quedaría aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

A continuación el alcalde da cuenta del informe del interventor.

Toma la palabra la concejal Zorione y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

abstenitu egin zirela eta oraingoan era abstenitu egingo direla adierazten du.

señala que en la comisión de hacienda se abstuvieron y que ahora también lo van a hacer.

Irizpena bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren eta EAJ-PNV taldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin eta EHBilduren aldeko 7 botoekin, onartu egin da,

Sometida a votación es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat y los dos concejales de EAJ-PNV.

6. 2-2015 kreditu aldaketa inguruko 489/2015 dekretua berrestea

6. Ratificación decreto 489/2015 sobre modificación de crédito 2-2015

2-2015 kreditu aldaketaren inguruko 489/2015 dekretuari buruz jakinarazten da.

Se da cuenta del decreto 489/2015 sobre la modificación de crédito 2-2015.

Bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren eta EAJ-PNV taldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin eta EHBilduren aldeko 7 botoekin, onartu egin da,

Sometida a votación es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat y los dos concejales de EAJ-PNV.

7. Zarkumendegiko bidegorria gauzatzeko beharrezkoak diren lurrak eskuratzeko hitzarmenak

7. Convenio para obtener los terrenos necesarios para la ejecución del Bidegorri de Zarkumendegi

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Txosten juridikoa onartzea eta txosten horretan bilduta dauden lagapenak onartzea, alkateari ahalmena emanaz udalari egiten zaizkion doako lagapenak gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Ratificar el informe jurídico y la aceptación de las cesiones contenidas en dicho informe facultando al alcalde a la firma de cuantos documentos sean necesarios para materializar las cesiones gratuitas que se realizan al Ayuntamiento.

Alkateak hitzarmenen nondik norakoak azaltzen ditu eta udalak lurrak doan hartuko dituela adierazi. Bidegorria gauzatzeko falta dena, baldintza pleguak martxan jartzea izanik.

El alcalde explica los pormenores de los convenios y señala que el Ayuntamiento va a adquirir los terrenos gratuitamente. Y que para ejecutar las obras, falta poner en marcha el pliego de condiciones.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza eta ogasun batzordean abstenitu ziren arren, txosten juridikoa duenez aldeko bozka emango dutela adierazten du.

Toma la palabra la concejal Zorione y señala que si bien en la comisión de hacienda se abstuvieron, ahora van a votar a favor ya que hay un informe



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bestetik, Bixente zinegotziak mahai gainean uztea eskatzen du, hurrengo legealdian erabaki beharko litzatekeelako.

Irizpena bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren abstentzioarekin eta EAJ-PNV eta EHbilduren aldeko 9 botoekin, onartu egin da,

jurídico.

Por otro lado, el concejal Bixente solicita que quede sobre la mesa, al considerar que debería de acordarse en la siguiente legislatura.

Sometida a votación es aprobada con 9 votos a favor de EHBildu y EAJ-PNV y la abstención del concejal de Hamaikabat.

8. Santiagomendiko lur urbanoen hitzarmenak

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Aurkeztutako hitzarmenak onartzea eta OHZ aldatzeagatiko itzulketak onartzea, horiek azken 4 urteei aplikatuz.

Alkateak 4 hitzarmenen nondik norakoak azaltzen ditu, eta horiekin Santiagomendi auzoan Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eraikigarritasun gabeko hiri-lur bezala sailkatutako 4 lurzati jabeen azken lau urteotan ondasun higiezin gainera zerga bezala ordaindutakoa itzuli eta berriro ez kobratzea saihestuko dela. Eta egoera konpontzeko era errazena dela gehitzen du.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza hitzarmen hauetarako zergatik ez dagoen txosten juridikorik galdetuz.

Udal idazkaria ordeak eta kontu-hartzaileak kasu honetan ez dela beharrezkoa eta aurreko puntuko hitzarmenetan txostena egotearen arrazoia, lagapen bat izatea zela argitzen diote, eta kasu horietan txostena beharrezkoa dela.

8. Convenio con los terrenos urbanos de Santiagomendi

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Aprobar los convenios presentados y aprobar las devoluciones por rectificación del IBI, aplicadas a los 4 últimos años.

El alcalde explica los pormenores de los cuatro convenios y señala que con ellos, a los propietarios de las cuatro fincas que el PGOU calificó sus terrenos como urbanos pero sin edificabilidad, se les va a devolver la cantidad que en los últimos cuatro años han abonado como impuesto de bienes inmuebles y se va a evitar que se les vuelva a cobrar. Añadiendo que es la forma más sencilla de solucionar el problema.

Toma la palabra la concejal Zorione y pregunta porque para estos convenios no hay un informe jurídico.

La secretaria y el interventor le explican que para estos casos no hace falta, y que si en el punto anterior si había informe era debido a que se trataba de una cesión y de que en esos casos el informe es preceptivo.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Irizpena bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren eta EAJ-PNV taldeko 2 zinegotziaren abstentzioarekin eta EHBilduren aldeko 7 botoekin, onartu egin da,

Sometida a votación es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat y los dos concejales de EAJ-PNV.

9. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntzen onarpena

Andoaingo Udalak igorritako idatzia aurkeztu da da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari 467.168,00 euroko diru kopurua eskaera onartzea, 2015eko martxoaren 25eko Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariaren ebazpena, noren bidez argitaratzen den enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2015eko ekitaldiko laguntzen deialdian oinarrituz, eta 8.229,00 euroko konsignazioa onartzea.

Alkateak proiektuaren nondik norakoak azaltzen ditu.

Gaia batzorderen batean zergatik ez den aztertu Zorione zinegotziak egindako galderaren aurrean, alkateak azken momentuan iritsi dela eta lehenbailehen onartzea komeni dela argitzen dio dio.

Zorionek hartzen du hitza eta enpleguaren alde egon arren, informazioa ez dutenez, abstenitu egingo direla adierazten du.

Bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren eta EAJ-PNV taldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin eta EHBilduren aldeko 7 botoekin, onartu egin da,

9. Aprobación ayudas para acciones locales de promoción de empleo 2015

Se remite para su aprobación el escrito del Ayuntamiento de Andoain, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Aprobar la solicitud a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo la cantidad de 467.168,00 euros en base a los proyectos a presentar dentro del marco de la resolución de 25 de marzo de 2015, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2015, aprobando una consignación de 8.229,00 euros.

El alcalde explica los pormenores del proyecto.

La concejal Zorione pregunta porque el tema no se ha tratado en ninguna comisión, a lo que el alcalde le responde que ha llegado en el último momento y que conviene aprobarlo cuanto antes.

Toma la palabra la concejal Zorione y señala que aunque estén a favor del empleo, se van a abstener por falta de información.

Sometida a votación es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat y los dos concejales de EAJ-PNV.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

10. Txertatu merkatuan eta Hazi proiektuak eta eskaerak onartzea

Andoaingo Udalak igorritako idatzia aurkeztu da da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Txertatu merkatuan eta Hazi proiektuak eta diru laguntza eskaerak onartzea, kostua 99.566,00 eta 182.185,00 eurokoa izanik.

Alkateak proiektuaren nondik norakoak azaltzen ditu. Eta Zorione zinegotzia aurreko puntuan adierazitakoa berresten duela dio.

Bixente zinegotziak hartzen du hitza adierazteko udal taldeak ez duela oposizioa kontutan hartu, eta hurrengo legealdian berriro ez gertatzea eskatzen du. Eta Berta zinegotziak bere legealdian ere berdin gertatu zela erantzuten dio.

Bestetik alkateak adierazten dio, lau urte hauetan udal taldeak eta udal langileek eskatutakoari erantzun dietela, eta bera alkate bezala egon zen garaian berriz, 8 urtez herriak ez zuela ezeren berri eduki.

Bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren eta EAJ-PNV bi zinegotzien abstentzioarekin eta EHBilduren aldeko 7 botoekin, onartu egin da,

11. Estatuko Administrazioak jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatze ebazpenaren – Alkatearen 370/2015 ebazpenaren berri eman eta berrestea.

Estatuko Administrazioak parte-hartze

10. Aprobación de las solicitudes y proyectos de Txertatu merkatuan y Hazi

Se remite para su aprobación el escrito del Ayuntamiento de Andoain, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Aprobar los proyectos y las solicitudes de subvención para los proyectos Hazi y Txertatu merkatuan cuyo costes ascienden a: 99.566,00 y 182.185,00 euros respectivamente.

El alcalde explica los pormenores del proyecto y la concejal Zorione se ratifica en lo señalado en el punto anterior.

Toma la palabra el concejal Bixente para señalar que el equipo de gobierno no tiene en cuenta a la oposición y que espera que no ocurra lo mismo en la siguiente legislatura. A lo que la concejala Berta le contesta que en su legislatura ocurrió lo mismo.

Por otro lado el alcalde le contesta que en estos cuatro años el equipo de gobierno y los trabajadores han respondido a todas sus peticiones, y que en cambio cuando el fue alcalde, durante 8 años el pueblo no tuvo noticias de nada.

Sometida a votación es aprobada con los 7 votos a favor de EHBildu y la abstención del concejal de Hamaikabat y los dos concejales de EAJ-PNV.

11. Dar cuenta y ratificar el Decreto de Alcaldía nº 370/2015 de personación en el Recurso contencioso administrativo interpuesto por la Administración del Estado.

El alcalde informa de que la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

ordenantza onartu izanaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri izanaren berri ematen du alkateak.

Adierazten du, ordenantza jendaurrean egon den bitartean ez dutela alegaziorik aurkeztu eta auzia zertan datzan ez dela ezagutzen eta, demanda jarri bitartean ez dela jakingo.

Zorione zinegotziak ordenantza indarrean dagoen galderaren aurrean, udal idazkari ordeak baieztatu erantzun, epaiketan eskatu eta onartu ezean, errekurtsua jarri arren ordenantza indarrean egongo dela argitzen dio.

Bixente zinegotziak bozkatu egin behar den galdetu eta Zorione zinegotziak azalpena ematen saiatzen denean, Raul zinegotziak moztu eta bere kontra egin ondoren, azken bi zinegotzi hauen artean eztabaida bat sortzen da. Momentu horretan Ramon zinegotziak bilera utzi du.

Antolamendu eta Jarduera Araudiaren (ROF) 100 artikulua araberak, gai bat eztabaidatzen hasi eta zinegotziren batek bilkura uzten badu, abstenitu izan balitz bezala hartu behar dela kontuan harturik. Dekretua, EAJ-PNV taldearen zinegotzi baten eta Hamaikabat taldearen beste zinegotzi baten abstentzioarekin eta EAJ-PNV taldearen zinegotzi baten eta EHBildu taldearen 7 zinegotziren botoekin dekretua berretsi egiten da.

12. Donostiako udalaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea.

Alkateak Elio-enea eta Larraburu lursailen jabetzaren inguruko arazoa aspalditik datorrela eta Donostiako Udalak 2015eko otsailaren 4ko udal osoko bilkuran hartutako akordioari ez diola erantzun azaltzen du. Beraz, 3 hilabete pasa direnez

Administración del Estado ha interpuesto recurso contencioso-administrativo contra el acuerdo de aprobación de la ordenanza de participación.

Señala que mientras que la ordenanza estuvo en exposición pública no se presentaron alegaciones y que no se sabe la razón por la que se ha interpuesto el recurso y que no sabra hasta formalizar la demanda.

Ante la pregunta de la concejal Zorione de si la ordenanza esta vigente, la secretaria le explica que si, y que la misma estará en vigor en tanto no se solicite su suspensión y lo apruebe el tribunal.

El concejal Bixente pregunta haber si hay que votar y cuando la concejal Zorione intenta darle una explicación, toma parte el concejal Raul y se mete con ella, suscitando una discusión entre estos dos últimos concejales, momento en el cual el concejal Ramón abandona la sesión.

Dado que de acuerdo con el artículo 100 del ROF cuando un concejal se ausente de la sesión una vez se haya iniciado su deliberación se considerara que se abstienen, se ratifica el decreto con 7 votos a favor de los concejales de EHBildu, un voto a favor de EAJ-PNV, un voto de abstención del concejal de EAJ-PNV que se ausenta y la abstención del concejal de Hamaika bat.

12. Interposición del recurso contencioso-administrativo contra el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

El alcalde explica que el problema de titularidad de las parcelas de Elio-enea y Larraburu viene de atras y que el Ayuntamiento de Donostia no ha contestado al acuerdo plenario que este



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela hartu daitekeela eta Donostiako udalaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea proposatzen du.

Bixente zinegotziak gaia mahai gainean uztea eskatzen du, hurrengo legealdian erabaki behar dela kontsideratzen baitu.

Bozkatu ondoren, Hamaikabat taldeko zinegotziaren abstentzioarekin eta EAJ-PNV eta EHBilduren aldeko 8 botoekin, honako hau onartzen da:

Lehena.- Donostiako udalaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea, udal honek 2015eko otsailaren 4ko udal osoko bilkuran hartutako akordioa – Elio-enea eta Larraburuko lursailen titulartasuna eskualdatzeko erreklamazioari buruzkoa – administrazio isiltasunaren bidez gaitzetsi delako.

Bigarrena.- Alkateari administrazioarekiko auzi errekurtsua tartekatzerako eta abokatuetakoa eta prokuradoreetako izendapenerako ahalmena ematea.

13. Informazio, galdera eta eskariak

Legealdiko azken bilkura denez, eta Bixente zinegotzia hurrengo legealdian ez denez egongo, Zorione zinegotziak hitza hartu eta eskerrak ematen dizkio 20 urte hauetan egin duen lanarengatik, batzuetan desadostasunak eduki arren ohore handia delako alkate bat agurtzea. Era berean gainerako zinegotzietan ere eskerrak ematen dizkie.

Bestetik aipatzen du oposiziotik ahalik eta hoberen egiten saiatu direla eta ez badute

Ayuntamiento adoptó el 4 de febrero de 2015. Por lo que al haber transcurrido 3 meses, se considera desestimado por silencio administrativo, y propone interponer un recurso contencioso-administrativo contra dicho Ayuntamiento.

El concejal Bixente solicita que el tema quede sobre la mesa, al considerar que es una decisión a adoptar en la siguiente legislatura.

Sometida a votación con la abstención del concejal de Hamaikabat y 8 votos a favor los concejales de EHBildu y la concejal de EAJ-PNV, se aprueba el siguiente acuerdo:

Primero.- INTERPONER RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO contra el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián por la desestimación por silencio administrativo del acuerdo plenario que este Ayuntamiento adoptó el 4 de febrero de 2015, consistente en reclamar el traspaso de la titularidad de los terrenos correspondientes a los pertenecidos de Elio-enea y Larraburu.

Segundo.- Facultar al Alcalde para la interposición del recurso-contencioso administrativo y el nombramiento de abogados y procuradores.

13. Información, ruegos y preguntas

Dado que es la última sesión plenaria y que el concejal Bixente no va a estar en la siguiente legislatura, la concejal Zorione aprovecha para darle las gracias por la labor realizada en los últimos 20 años, y señala que aun cuando en ocasiones ha habido desacuerdos, es un honor despedir a un alcalde. Del mismo, da las gracias al resto de concejales.

Por otro lado indica que desde la oposición han tratado de hacer las cosas



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

asmatu, barkamena eskatzen du. Gehitzen du, hurrengo alkatea nor izango den oraindik ez jakin arren, desadostasunak egon daitezkeela, baina beti errespetuz Bukatzeko udal taldeari eskerrak eman eta zorte ona opa die.

Bixente zinegotziak hartzen du hitza eta herriaren alde gauza asko egin dituela eta batzuk okerrak izan arren, onak ere egin dituela adierazten du. Kontzientzia lasai duela, herriarentzat lan egin duelako eta barkamena eskatzen du norbaiti min egin badio.

Alkateak hartzen du hitza, udal taldeari eskerrak emateko eta baita udal langileei emandako babesarengatik. Udal taldeari zuzentzen zaio, gai asko atera dituztela azpimarratuz eta gehienak hurrengo legealdian zinegotzi bezala ez jarraitu arren, beren laguntzarekin kontaktzen duela adierazteko. Bukatzeko EAJ-PNV taldea zorientzen du hauteskundeetan lortutako emaitzengatik.

lo mejor posible y pide perdón si no han acertado. Añade que aún cuando todavía no se sabe quien va a ser el siguiente alcalde, puede haber desacuerdos, pero que siempre deben ser dentro del respecto. Termina dando las gracias al equipo de gobierno y desándoles buena suerte.

Toma la palabra el concejal Bixente señalando que ha hecho mucho por el pueblo, y que si bien algunas puede que hayan sido malas, también ha habido buenas. Añade que tiene la conciencia tranquila, que ha trabajado para el pueblo y pide perdon si ha podido dañar a alguien.

Toma la palabra el Alcalde para dar las gracias al equipo de gobierno y a los trabajadores por el apoyo recibido. Y se dirige al equipo de gobierno indicandoles que han hecho mucho y que si bien la mayoría no repite en la siguiente legislatura, cuenta con su colaboración. Para terminar felicita al EAJ-PNV por los resultados obtenidos en las elecciones.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2015eko maiatzaren 28an

**Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria**